

## Arratiako Bertsolari Txapelketea hilaren 12an Zeanurin

12. orrialdea

## Kultur astea Lemoan

Hilaren 7tik 13ra kultur astea antolatu dau Lemoako Udalak. Eskolaumeai zein edozein adineko jenteari zuzendutako ekitaldiak egongo dira aste osoan zehar. Ikuskizunak, filmak, antzerkia, berbaldiak... Andres Urrutia euskaltzainburuak egingo dau berbaldietako bat.

12. orrialdea



## Rallystoneko auto klasikoak guretik pasauko dira

10. orrialdea

# begitu <sup>TOKIKOM</sup> 10 urte

arratia ubide zeberio

# 163

2012ko maiatzaren 2a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak argitara

Orain 30 urte Ruper Lekuek eta beste ikertzaile batzuek jasotako kanta eta bertsoak argitaratu ditue Arratiako Musika Eskolak eta Zertu Kultur Elkarteak, musika eskolearen 25. urteurrena dala eta.

**L**iburuak zati bi ditu. Lehenengoan, Iban Gortazar eta Naia Rodrigezek Musika Eskolearen historia azaltzen dabe. Bigarren zatia Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak, Gontzal Mendibilen hitzaurrea, Ruper Lekueren aurkezpena eta jasotako kanta eta bertsoak doinu eta letraz dakar. Iturriai garrantzia emon gura izan deutse

egileak eta argazki eta guzti agertzen dira.

Liburuaren aurkezpena maiatzaren 5ean, arrastiko zortziretan izango da Igorreko Kultur Etxean.

Apirilaren 21ean, BEGITUren 10. urteurrena ospatuko egin zan ekitaldiaren argazkiak dagoz 9. orrialdean. **8. eta 9. orrialdeak**



Maider Yabar Igorrekoa BEGITUren 10. urteurreneko jaian.

### IGORRE

#### Negarran akordio bila

Maiatzaren 2an, Negarrako beharginak eta enpresek bilerean egingo dabe akordio bila. Orain arteko bileretan ez da akordiorik lortu, eta greban eta mobilizazioak egiten jarraitu dabe Negarrakoak. Maiatzaren Lehenean, euren burrukea agertu eben manifestazioetan. **7. orrialdea**



### ZEANURI

#### San Isidro eguneko ganadu feria prest

Ganaduaren, Artisautzaren eta Nekazal Produktuen XXXI. Azokea egingo dabe Zeanurin San Isidro egunean. Ia galduta dagozan baserriko behar batzuen erakustaldia be egongo da: ardiak eraistea, gaztaingintzea eta ardi mozketea, tartean. Eta arrastian idi-probak egongo dira. Egun horren inguruan beste hainbat ekitaldi antolatu dira. Holan, Bizkako Bertsolari Txapelketako eskualdeko finala Zeanurin izango da hilaren 12an. **5. orrialdea**



### AREATZA

#### Karpoko jaia berreskuratuko dabe

Santa Kurutzera igoerea mantentidu bada be, osteko Karpoko jaia ez, eta Areatzako kultura eta kirol alkar-teak batu eta jai hori berreskuratuko gura izan dabe. Hilaren 5ean izango da jaia. Dana dala, ez da hau alkar-teak alkarlanean egingo daben ekitaldi bakarra. Izan be, hiruhileko kultur programazinoa danon artean egiteko lantaldea sortu dabe. **6. orrialdea**





## ZEURE BERBEA

### Zeure berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazten gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Aginaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Inizitua



Inizitua trumoiaren edo hodeiaren aurretik ekadak sortzean dauan energia handiko deskarga elektriko da. Meteorologiako fenomeno hau zeruaren ikusi leitekean ikaragarrienetariko dogu. Ato baten, arin baino arinago, izaten da eta kalte itzelak eragin leiz. Arratian hainbat erataro jaso da: inizitu, inizistu, inistu, oinaztu, oinaztatu, justuri, oinaztari, oinestargi, oinestitu, unizitu, dirtada... Batuz, tximista esaten da. "Inizitue" gatzizena lez, arin dabilen lagunari deitzeako erabilten da.

## ERETXIA

### Igorren atez-ateko zabor bilketea hasiko dogu!



IKER YURREBASO

**B**atek baino gehiagok sustoa hartuko eban titulua irakurrita, seguru. Atentzinoa deitzeako moduko titulua ipini deusat testuari, eta imajinetan dot lortu dodala zure arretea neureganatzea honaino heldu bazara behintzat irakurle. Aspaldian ibili naz zabor bilketeari buruz idazteko gogoz, eta azkenean bai, zelai likatsu honetara egin dot salto, ufa! Esan beharrik ez dago, badagoz hainbeste gai interesgarri komentetako modukoak, adibidez Gorbea Central Park eta antzeko izen anglofilo horreen kritika sutsu bat egin neike, edo gastu publikoaren murrizketez be egin neike berba pare bat, edo hain beharrezkoa dan mobilizazio sozialaren aldarria egin neike, edo gure kirolarien balentriak komentau neikez, edo gaztaironondozko egurraz otzarak egiten dodazan bitartean jatortan basoko usaiatz bertso bat idatzi neike... Baina zaborraz idazteko aprobeitxu gura dot aukera hau, eta ez da usai kontuakaitik hain zuzen be, ez ba!

Barregurea ez baina ikerea sentidu neban BEGITUren 156. zenbakiko alearen titulu nagusiagaz: 'Zaborra diru iturri izatea gura dau mankomunidadeak'. Orduan, zenbat eta zabor gehiago, hobeto? Halakoetan pentsetan dot momentu garrantzak umore pitin batez gozotzen ikasi beharko neukeala. Zaborra, diru iturri? Elikagaia osasuntsuak ekoiztea bai izan leiteke diru iturri duina, energia ekoizteko industria garbi bat jorratutea be izan leiteke diru iturri interesgarria, kultura diru iturri izatea lortu ezkerro gizaki bezala aberatsagoak ginateke duda barik...

Behar bada ez zan ondo azaldu mankomunidadeko presidente agurgarria, edo kazetariak ez eban ondo ulertu, eta hemen nabil ni taloak eta morokilak zentzu barik nahasten. Baina gero, alkarrizketan aurrera joan ahala, irakurten dot: '%23 bakarrik birziklatzen dogu eta guk eroan gura dogu Arratia %30ra'. Ufa! Arratia ez lar urrineria eroan faborez... Prensan irakurritakoaren arabera, Gipuzkoan bertan, Usurbilen % 80a birziklatzera heltzean badira, zergaitik ez hara begiratu? Zergaitik ez Zero Zabor?

Badakit apostu politiko zehatz bi dirana, atez-ateko zabor bilketea eta bosgarren kontenedorea. Eta sigla politiko zehatzak dagozala batoren zein bestearen ostean. Baina nik eztabaida zabal bat gura dot, exijiduten dot. Duda daukadaz, eta nahiko neuke mankomunidadeak edozein proiektu marxan ipini orduko eztabaida fase baten inbertidutea, esperientzia desbardin datuak ezagutzeko aukera izatea eskatzen dot, esperientzia desbardin birziklapen tasak ezagutzea, gastuak ezagutzea... Informazioa eta pedagogia gura dodaz, eta ez kolonia usaina eta txin-txin soinuak dituen tituluak.

**BATZ**  
BATZ, S. KOOP.  
Torreia suzta, 12  
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

*Beharrea beharrez, euskeraz eginez*

Enkarguak Batz en gaiti

**MONDRAGON**

## LUMATUTEN



**JUAN MANUEL  
ETXEBARRIA**

## Untzejoa

**Z**eberioi auzune asko ditu, bata baino bestea politagoak, baina beharbada politenatarikoa Ibarra. Hantxe neukan itxaroten Damian, nire lagun handia eta kontulari aparta, zer itandu eta haxe kontetako atibo. Eta esan neutsan ba ze:

–Hi, Damian, hik badakik harako Zeberioگانeko herri-idiaren ha kontu baragarria?

–Jakingo ez joat ba? Lehenago, Zeberioگانen, herratoki bat egon ei zozan idiai eta, herradurak ipinteko zein apatak gauzeztandu edo kaminoetan labandu. Eta pasau ez jakiat pasauko zozan baina kontau, hauxe pasadizu hau kontetan dok "untzejoa" dala eta ez dala. Aitik:

"Ba, baten, hemen Erefiotza partean karreteru famadu bat egon ei zozan. Idiak be alozokoak jaukazan euki be, herri-idi ederak, bietatik heziak. Eta egun

baten Zeberioگانera eroan joazan idiok erazteko ditean. Ganaduak erantzi, jakingo dok zer dan ez dok? Ba, horixe, apatak atondu eta apaxetan herradurak ipintea. Eta ba ailegau zozan herratokia eta ipini jauzian idi mardoena aidean ugalezko zintakaz, eta hasi zozan apatak atonduten herradurak ondo josteko. Eta, klaro, badakik ba, batzuetan kon-tunik handienagaz ibilita be, untzejoa sugertetan dok. Hik jakin be egingo dok ez dok, baina untzejote hori hauxe dok: beitiok, herradura-zulotik untzea sartzean dok eta, apax gorrean izan ezker, ez jakok idiari minik egiten baina barruko mamirantz sartu ezker, min egiten jakok nerbioan eta ostikotsean hasten dok atozan. Ba, horrexeri min emote horrerri esaten jakok "untzejoa". Eta, ba, txarto kalkulau edo ez jakiat ba zegaitino, untzejoa egin jauzian herri-idiari eta entzutea jaukat idi horrek bota joan ostikadeagaz, ha herradurea aidean jauztin joala eta indarraren indarragaz Urkiolako kanpandorrera ailegau eta golpearen golpeagaz hiru egunean ibili zoala hango kanpabuelta zera kanpaiotsean. Beste batzuk esaten jaudiek hak herradureak Zeberioگان parrokia sakristania ganeko kanpantxo jo eta ha be egun bidiruen egon zoala kanpaiotsean. Ha be ikustekoa izango zozan ba e? Honeek gure zaharrok inon danik asmatu eta kontau be gero! Zeozer egin behar, orduan ez jzgoan gaurko entretenimenturik eta, behin abemarietarazker, umeai zeozer kontau be egin-egin behar, denporea zelanbaist emonazoteko, batezbe, negu luzeko gaulendietan".

## ZERTZEAN



**AINHOA MENDIA**

1

Danak dekokun aukerea da "el derecho al bienestar" etxe bat euki, umeak izan, ibili munduan zehar momentu onak ta txarrak pasau bai barre eta bai negar horretarako dirua falta ta, beraz lan egin behar.

2

Momentu hontan ezta polito lanaren egoerea dirue gutxi eta ganera impuestoen igoerea etorkizune latza datorru, benetan sano grabea miseri hutsa, kale gorrien bape erriki grabea.

## Gaia: "Maiatzaren Lehena"

3

Etxetik urten beharran bile ta esku hutsik etxera kurrikulumek bota ta bota hona, hara ta bestera hamaika buelta emon arren be gagoz betiko antzera "ta gaurkoan be ezta ezebe" esan behako atzera.

4

Langilearen eguna dogu maiatzaren lehenengo nahiz eta orain lan barik egon gutariko gehiengo jende gehienak eduki, badeko beharrerako gogoa baina gurean nagusi dire langabezi ta paroa.

5

Egune gorritz markatuta dau egutegi guztietan ez dogu lanik egiten eta lehenengo egun horretan hasi beharko gintekiz danok hurrengokoa pentsetan: beste egunek be gorritz markau beharko gaunkez, benetan.

6

Denpora pasau ta ebxon daigun dana onera etortea horretarako egin behogu danon artean bidea eskutik heldu alkarrerri ta mugitu hau ta bestea ia behingon lortzen badogu ametsak egj bihurtzea.

## BEGI TXINDORRA

**A**upa! Bazatoz Kukumara? Ze ondo... libre daukaguz banketa bi ezkinan.

...Kafesne bat eta zero-zero bat mesedez, pasau periodikue, azeitunek, kaña bat ilune, pelotazoak, Urdangarin que mangui, ya te digo, mosto baltza, kanbioak tabakorako, zelan egune?, ba... sin mas... Ontxe urten dot beharretik, ebagi be, coca-cola bat botilan, te gorrie, drakis pakete bat, deskafeinaue sobrekoa, partidetu bet dardoatara?, frutal bat, Voll-Damm bi, pina zumo bat, biher arte Ainare...

Makina bat historia, makina bat amets, makina bat bizipen... inoz ahaztuko ez doguzanak.

Eskerrik asko Kukuma.

**Ezkinakoak**




**Lorazaintza**  
 Lorategien Diseinu eta Gauzatzes  
 Ureztaketa instalazioa  
 Mantenua eta Inausketa  
 Bildosola Industrialdea E2 Pub. 48 | 47 Artea  
 Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
 gorosti@gorostisncl.com


**Ortodontzia Implantaeak Estelina**  
 Marine Urquiza Aieloa  
 Odontologoa  
 Bidebarri 1, behea  
 48140 Igome-Bikale  
 T. 94 631 30 39  
 Nafarroa, Zeharka 100  
 R.P.S. 1/06



**ZEANURI**

# Ganadu-feria, kantua, bertsoak eta jantzak San Isidro jaietan

Azken urteotan moduan, maiatzaren 15ean, San Isidro egun berean, Zeanuriko Ganaduaren, Artisautzaren eta Nekazal Produktuen XXXI. Azokea egingo da.



**San Isidro ganadu feria.**

Jaiari maiatzaren 11n, barikuan, emongo jakie hasierea; 19:30ean, Ibarreta frontoian herriko jantzariak egingo dabena saioxoagaz hasiko dira aurtengo sanisidroak, eta ondoren kantu-poteoa egingo da tabernarik taberna. 21:30ean kantu-afaria izango da frontoian Bentazaharreko Mutiko Alaiak seikotearen zuzendaritzapean.

Hurrengo egunean, maiatzaren 12an, zapatuan, 2012ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako eskualdeko finala jokatu da, frontoian, 17:30etik aurrera.

Jaietako egun handiena, maiatzaren 15a, San Isidro eguna izango da, Zeanuriko Ganaduaren, Artisautzaren eta Nekazal Produktuen XXXI. Azokea egingo da eta; ferialekua herrigunaren sarreran, San Isidro balseizearen aurrez aurre dagoan

**Jon Urutxurtu**

Ganadu-feria izaten da San Isidro

jaietako ekintza nagusia, baina beste gauza batzuk be prestatu dabez egitaraua osatzeko.

aparkalekuan egongo da, eta artisau eta nekazal produktuen azokea, plazan. Gainera, goizean zehar hainbat erakustaldi ikusi ahal izango dabez Zeanurira hurreratzan diranak: ardiak eraistea, gaztaigintzea eta ardi-moztea. Artxoak be erreko dira, eta artxo-okelea dastatzeko aukerea egongo da. Bestalde, "Emakumeen lana nekazal munduan" argazki erakusketea ikusgai egongo da.

11:00etan meza nagusia izango da San Isidro baseleizan, eta ostean, eguerdiko 12:30ean, Arrikibar taldeak jantza emonaldia egingo dau herriko plazan. Goizeko egitarauari 13:00etan emongo jako amaiera ganadu feriako sari banaketeagaz.

Arrastirako, azken urteotako ohitureari jarraituz, idi-probak antolatu dira, eta hiru idi-parek neurtuko dabez indarrak: Zallako Zubiondo jatetxeak, Andrakako Andra Sagardotegiak eta Zeanuriko Mintegi baserriko idi-pareak.

Maiatzaren 19an, zapatuan, emongo jakie amaiera 2012ko San Isidro jaiari, arrastiko 19:00etan Andra Mari parrokian egongo dan abesbatzen kantaldiagaz; hiru abesbatzek hartuko dabe parte: Karrantzako Pozalaguak, Basauriko Sociedad Coral-ek eta Zeanuriko abesbatzak.

**ARRATIA**

# Haur eskoletan izena emateko epea zabalik

**Erredakzinoa**

Maiatzaren 2tik 11ra bitartean, biak barne, Haurreskolak Partzuergoko Haur Hezkuntzako zentroetan 0 eta 2 urte bitarteko haurren izena emateko epea zabalduko da. Arratian, Haurreskola Partzuergoak Artean, Areatzan, Bedian, Diman, Igorren, Lemoan eta Zeanurin daukaz eskolak.



**Umeak eskolan.**

## Arratiako Musika Eskola

### IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

Epea: maiatzean  
Tlfnoak: 94 673 92 05 / 656 71 61 83  
9:00etatik - 14:30 arte  
[info@interklabe.com](mailto:info@interklabe.com)

**25** URTE

## ZEANURI

**Erroten ibilaldia  
maiatzaren 6an**

Maiatzaren 6rako prestatu dabe Joko Alai eta Ipizki  
Taldeak 2012ko Zeanuriko Erroten Ibilaldia.

**Jon Urutxurtu**

Aurten zazpigarren edizioa beteko dau oinezko marxa honek eta antolatzaileak adierazoten dabenez helburuak hasierako berberak dira: "partaideai Zeanuri eta bere auzoak ezagutzera emotea eta Zeanuriren historia erotak izan daberen garrantzia ezagutarazotea". Ez dira gitxi, izan be, Zeanuriko errotrak edo erroten arrastoak, guztira hamazortzi, danak hidraulikoak. Ibilbidean zehar hamaikaren ondotik igaroko dira ibiltariak eta bitan —Ibargutxin eta Olabarrin— sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe.

**Bi ibilbide: luzea eta laburra**

Bi ibilbide dagoz aukeran, bata luzea, 18 kilometrokoa, eta bestea, laburragoa 12 kilometrokoa. Urteera herriko plazan izango da, goizeko 09:00etan. Altziber eta Errotabari erroten ondotik pasau ostean, Undurrakgo urtegiaren ertzetik jarraituko dabe parte-hartzaileak. Urtegia atzean itxi bezain laster Barrengoerrota, Erdikoerrota eta Goikoerrota aurkituko dabez, hirurak Beretxikorta errekatxoaren ertzean eta 500 metroko tarte baten barruan. Agarre izeneko baserriaren ingurutik aurrera eginez, Undurraga auzunera jaitziko dira Ibargutxiko errotarako bidea hartzeako; hemen, atek zabalik izango dira, eta gura dabena kuku bat egin eta errotea lanean ikusi ahal izango dabe.

Ibargutxitik Lanbreabeko errotera, eta hemendik barriro Undurrakgo urtegiaren ertzetik ekingo deutse, oraingoan beste aldetik. Alkiberren indarrak batu jan-edanagaz eta Otsemendi auzunean eta gero Uriben sartuko dira ibiltariak, eta Intxaurbeko, Axpeko eta Zulaibargo erroten ingurutik igaro ostean, azken kilometroa betetzen hasiko dira. Helmuga baino 300 bat metro lehenago ibilbideko azken errotea azalduko da, Olabarrikoa —Pujana familiak zaharbarritua—, eta bisitetako aukerea izango da.

**Eguna:** maiatzaren 6a, domeka.  
**Izena emotea:** 08:30etik aurrera, herriko plazan. 3 €.

**Urteera:** 09:00etan.

**Ibilbidea:** 18 kilometro inguru luzea eta ibilbide laburra: 12 kilometro.

**Jan-edana:** Alkiberren jan-edana bananduko dau Gastronomía Cantabricak.

**Errotrak lanean:** ibilaldiaren hasieran Ibargutxiko erroten eta amaieran Olabarrikoan sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe ibiltariak.

**Antolatzaileak:** Ipizki Taldea eta Joko Alai Alkartea.

**Laguntzaileak:** Gastronomía Cantabrica, Lankidego Lantalde, Zeanuriko Udala, Gorbeialde, Sagama Txokoa, Zeanuriko Jubiladuen Taberna eta Aratiako Gurutze Gorria.

**Informazio gehiago:** www.ipizki.com edo telefono honeetan: 653 016 117 / 94 673 92 87.

## IGORRE

**Auzo batzarretako  
eskariak erantzuteko  
erabiliko dau Udalak diru  
erremanentea**

Udaletxeko plaza.

**Erredakzioa**

Igorreko Udalaren arabera, apirilaren 20an, txosten ekono-

mikoak 377.964,39 eurotako erremanente likidoa emoten eban. Diru hori auzo batzarretan egindako eskariak betetzeko era-

biliko dabe.

"Auzotarrak egindako eskariak eta bertan proposatutako hobekuntzak eta udaleko webgunean danon eskura dagozanak erabiliko doguz. Horretarako batzorde desbardinetan aurkeztuko doguz proposamenak: euskera-kultura, gazteria, ongizate eta urigintza besteak beste. Hortik helduko dira ogasuneko mahaira eta negoziaketan egin beharreko inbertentzino eta ekinza zehatzak erroango dira alkatetzatik, zifra konkretuak ipinita" azaldu dabe udal iturriak.

Eskarien artean ongizate arlokoak izango dabela lehentasuna jakinarazteko dabe. "Erakundeetatik datozen murrizketak dirala eta udalak gero eta konpertzentzia gehiago izango dau gizarte ongizate arloan eta gure lehentasunak izango dira enplegua sustatzea, lan eskubidea errespetatzea, etxebizitza eskubidea bermatzea eta adinekoak kontuan hartzea".

## AREATZA

**Antxinako Karpoko jaia  
berreskuratuko dabe  
areatzazarrak**

Karpoko erromeria berreskuratuko dabe Areatzan.

**Erredakzioa**

Areatzan kultura eta kirolaren gainean ardurea daukien alkarreak batu eta kultur programazio bateri ekingo deutse. Alkarreak alkarlanean egindako lehen ekin-tza Karpoko erromeria eta Santa Kurutzeko jaia errekupeatea izango da, hilaren 5ean.

**Karpoko erromeria**

Santa Kurutzera igooera mantendu izan dala beti dino Asier Garcia antolatzaileetakoak "urtero egin dan gauza bat izan da. Baina guk lehengo egiteko modua berreskuratzea gura izan dogu. Guri esandakoaren arabera, Santa Kurutzera joan, meza entzun, zeozer jan eta gero bajatu egiten zan beste bide batetik Unbiarrentza eta handik

Karpoko. Karpon bazkaria egiten zan bakotzak etxetik ekarritakoagaz eta gero erromeria".

Aldaketa batzuk egon dira, dana dala. Izan be, lehen domeketan egiten zan "baserriko lanak zapaturra arte egiten ziralako" baina orain zapatuan izango da. Gainera, sasoi baten arto topeak egoten ziran, baina gaur egun debekatuta dagoz eta ez dira egongo.

Musika eta erraldoiak ez dira faltauko. Hauxe da egitaraua.

**Egitaraua**

09:30ean, bistuagaz Areatzan zehar.

10:00etan, Santa Kurutzera igooera.

11:00etan, Santa Kurutzen gura dauanarentzat meza.

11:45ean, Areatzako Udalak

emondako kopautxo.

12:00etan, Karporantza abiatu.

13:00etan, txalapartea, gaitea eta erraldoiak Karpon.

14:30ean, herri bazkaria bakotzak etxetik ekarritakoagaz.

15:30ean, umeentzako filma.

17:00etan, kuadrilen arteko herri kirolak.

20:00etan, Zirkikin bez taldeagaz erromeria.

**Kultura eta kirola dinamizetan**

Hau antolatutako Areatzako kultur alkarreak batu eta batzar bi egin ebezan. "Bakotxean 21 persona inguru batu ziran. Holan lan egitea oso gaita dala ikusita, talde motor bat sortu zan. Talde horretan sartzeak baldintza bakarra lan egiteko gogoia eukitea zan. Hamar persona dagoz taldean. Bertan, Benja Iruista kultura zinegotzia dago udaletxeko ordezkari moduan; PNV-EAko ordezkari bat be badago; Bilduko beste ordezkari bat; Pedro Ormazabal, Jon Ordeñana eta Iker Garcia bakotxa bere izenean, persona fisiko eta bakarkako moduan dagoz; gaztetxe ordezkari bat be badago; tanborradako beste ordezkari bat; Emakume Foroko beste bat; Turismo mahaitik bat, eta guraso alkarreak be ordezkaria dauka" dino Asier Garcia.

**Hiru helburu**

Hasteko hiru helburu daukiez kultura bultzatzaileak: "auzo eta ermitako jaiak berpiztea eta indartzea, herriarrek ahalik eta kultur informazio gehien eukitea eta kultura herriaratztea". Hori kontuan hartuta batzarrek egiten jarraituko dabez hiruhileko programazioak osotutako.



Ibargutxiko errotea, ibilbidean bisitetan danetako bat.

## ARRATIA



Txomin Ozerinjuregi eta Lierni Altuna sariakaz.

## Gorbeia Central Parkek Alimara saria jaso dau

Urtebete baino gitxiagoan sari bi jaso ditu euskal turismo-produktu honek. Lehena, FITUReko turismo aktiboko produktu onenaren saria izan zan.

### Erredakzioa

Gorbeia Central Parkek beste sari bat jaso dau, oraingoa Bartzelonan, CETT Grupek emoten dituan Alimara sariaren XXVIII. edizioan. Sarietarean antolatzaileak "Tokiko Erakunde Turistikoen" kategorian saritu dabe Gorbeia Central Park, aintzat hartuta turismo eta ostalaritza sektoreak, publikoak zein pribaduak, bere baliabideak jakinera emoteko egiten dauan ahalegina.

### Kataluniako Turismo Azokearen saria

Saria jasotera, Zuaiko Koadrillako

presidente Lierni Altuna, Gorbeialdeko presidente Txomin Ozerinjuregi, eta Gorbeia Central Parkeko talde teknikoa bertaratu ziran.

CETTK 28 urte daroaz Alimara sariak antolatuten, SITC-Kataluniako Nazioarteko Turismo Azokeagaz alkar hartuta, eta beti ardatz beraren inguruan: "sustapen turistikoko materialen kalidadea eta barrikuntzea, eta eskaera handituteko erakunde publiko zein pribaduak egiten daben ahalegina saritzea. Azpimarratu beharra dago aurten Alimara Sari Berezia Ferran Adriàren "El Bulli" jantokiari emon deusiela".

## ZEBERIO

## Zaintzaile eta eskola partikularretarako irakasle euskaldunen zerrendak eskuragarri Euskera Zerbitzuan

### Erredakzioa

Zeberioko Euskera Zerbitzuak zaintzaile eta eskola partikularretarako irakasle euskaldunen zerrendak osatu ditu eta konsultau gura dabezanentzat eskuragarri ipini ditu. "Urte hasieran Zeberio Euskera Zerbitzuak ekin eutsan zaintzaile eta eskola partikularretarako irakasle euskaldunen zerrendea osatzeari. Hi-

labetetan zehar eskabideak jaso doguz eta jada osatzen goaz zerrenda horreek" dino Jon Bollar Zeberio Euskera teknikariak.

Orain, zaintzaile edota eskola partikularretarako irakasle euskaldunak behar izatekotan eta behar hori bete ahal dauan pertsonarik ezagutu ezean, Euskera Zerbitzuagaz kontaktuan ipini eta hautagaien artean aukeratu ahal izango dabe kontratatzaileak.

## IGORRE

## Zabortegia 2013an zarratutea da Igorreko Udalaren lehentasuna

### Erredakzioa

Aurreko legegintzaldian, Igorreko zabortegia 2013an zarratuko zala adostu eben Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak. Udalak akordioa betetzea eskatu deutso Bizkaiko Foru Aldundiari eta datorren

urtean zabortegia zarratutea. Zabortegia 1987an zabaldu eban Bizkaiko Foru Aldundiak eta berak izan dau kudeaketearen ardurua, ez Igorreko Udalak. Orduetik hona Bizkaiko hainbat herritako uri hondakin solidoak gorde dira bertan, eta azken urteotan,

Gipuzkoako herri batzuetakoak be, bere egunean Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatutako akordioa dala-eta.

Udaleko iturrien arabera, Igorre solidarioa izan da Bizkaia osoagaz azken 25 urteotan. "Igorretarrok jasan doguz zabortegiaren arazoak, kamioien joan-etorria, hata eta kaioren presentzia. Ordua da zabortegia zarratuteko". Zarratuteko dataren inguruan Aldunditik egondako atzerapen guztiak be gogoratu dabez.

## IGORRE

## Urigintzea eta genero-ikuspegia buztartzen dauzan egitasmoa ipiniko dau martxan Udalak

### Erredakzioa

Igorreko Udalak "Debekatutako hiriaren mapa" egitasmoa martxan ipiniko dau. Udal guztiaren adostasunagaz onartutako Bardintan Planean jasota dago ekimen hau. Honen inguruan, Bardintan Plana dinamizetako teknikariaren

kontratazioa onartu ez zan arren (EAJ eta Igorre Danontzat kontra agertu ziran), planean jasotako egitasmoak burutzen jarraituko dau Udalak.

Debekatutako uriaren mapearen helburua, Igorren urigintza mailan egon leitekezan puntu balzak identifiketea da eta egoerak

konpondutea. Kontua da, seguratsunaren pertzepzioa desbardina dala gizonezko eta andrazkoen artean eta orain arte, andrazkoen ikuspegia baztertua izan dala urigintzan, "gizonezkoen begietatik eraiki dira herri eta uriak, normalean andrazkoen beharrezan kontuan hartu barik. Egoera honerik bueltea emotea da egitasmoaren helburua eta andrazkoak herriko leku guztietatik seguru sentiduteko, urigintza arloan aldatetako egin behar dira" azaldu deutse BEGURI udaletetik. Lehenengo eta behin, egoeraren diagnostikoa egingo da.

## IGORRE

## Mobilizazioak egiten jarraituten dabe Negarran

### Erredakzioa

Negoiazinoetan jarraituten dabe Negarran baina akordiorik lortu barik. Apirilaren 25eko bileran enpresek erregulazino espedienteen aurreikusitako kaleratzeak 59tik 48ra bajatutea proposatu eban. Adostasunik egon ez zanez, beharginak grebeagaz jarraitutea eta Jaurilaritari negoziazio epea luzatzea eskatzea ebatzi eben.

Maiatzaren lehenean, Negarrako beharginak euren protestea eroan eben manifestazinoetara. Arrigorriagan LAB sindikatuagaz Negarrako ordezkarri bat egon zan eta Bilbon CCOOegaz batera beste bat.

Maiatzaren 2an bildu egingo dira enprea eta beharginen ordezka-

riak negoziatan jarraituteko eta arazoari konponbide bat topetako.



Negarrako langileak 20an Igorren egin eben manifestazinoak.

## ARRATIA

## Maiatzaren 1ean langileak manifestazinoetan

### Erredakzioa

Burruka bera izan arren, sindikatuak bakotxa bere aldetik joan ziran maiatzaren 1ean. Gure eremu

ko beharginak eta langabeak, sindikatu eta alkarteetan antolatutakoak zein ez, manifestazinoetan hartu eben parte hainbeste urtetako burruna lortutako gizarte ongizate arri-

kuan ipinten daben murrizketen kontra agertzeko. Baina hainbat deialdi desbardin egon ziran eta beharginak ez eben bat egin.

LABek Arrigorriagara deitu zituan Arratiako beharginak, ELAK Bilbora, STEE-EILASEk Donostiara, ESK-k Bilbora, CCOO eta UGTkoak alkarregaz joan ziran Bilbon eta Etxeko langileak Bilboko plaza biribilean alkarretaratu ziran.

ARRATIA ALDEKO KANTA ETA BERTSO ZAHARRAK. ARRATIako MUSIKA ESKOLA 25 URTE.

# Arratiako Musika Eskolak eta Zertuk kantu tradizionalak jasoten dauan liburua argitaratu dabe

Liburuak zati bi ditu. Lehenengoan Musika Eskolearen historia kontetan da eta bigarrean, Ruper Lekue eta beste ikertzaile batzuek orain 30 urte jasotako Arratiako kanta eta bertso zaharren bildumea dago.

## Erredakzioa

Galtzar egoan altxorra argitara atera gura izan dabe Musika Eskolakoak lehengo kantai bizi barria emoteko. "Arratiako kantutegi hau altxor meta dogu, orainean eta geroan balio izango deuskuna. Jakin badakigu lehenagoko garaietan, gaur baino askoz be gehiago kantetan zana, baina etorriko dira, seguru, kanturako eta kantetako egun hobek" dino Gontzal Mendibilek hitzaurrean. Azala Jon Artetxe aretazartarrak -aurtengo Donostiako Jazzaldiaren kartelaren egileak- egin dau.

Liburuari Arratiako Musika Eskolearen historiari emoten deuto hasierara. Atal honen egileak Iban Gortazar eta Naia Rodriguez dira. Naia Rodriguez Musika Eskolan ikasle zan orain dala 25 urte eta irakaslea da bertan azkenengo 13 urteotan. "Sano erakargarria izan zan niretzat ikerketa lan hau egitea, musika eskolea sortu zanean ikasle nintzalako eta orain irakasle. Lan honetarako ikasle, irakasle eta proiektuaren bultzatzaileak egon naz" azaldu deuto Rodriguezek BEGITUri.

Lehenengo atal honetan historiariaren ostan, 30 argazki dagoz eta argazkiotan, 25 urte honeetan eskolatik pasautako hainbat

ikasle.

## Gordeta egoan altxorra

"Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak" izeneko atala Gontzal Mendibilek egindako hitzaurreak, Ruper Lekuerean aurkezpenak, kanta bildumeak eta egile ezagunen bertsoak osotuten dabe. Bilduman agertzen diran kanta eta bertsoak lau etorrera daukie: 1978tik 1981era Ruper Lekuek jasotakoak; sasoi berean Gontzal Mendibilek jasotakoak; Udako Euskal Unibertsitateko folklore taldekoak 1987 eta 1988an batutakoak eta talde horretako kidea izandako Jose Ramon Arbek grabau eta agindutakoak. Labayru Institutuan arxivatuta dagozan euskal filologiako behinolako ikasle batzuk jasotakoak eta Ruper Lekuerean eskuetara Igone Etxebarriari esker heldu diranak be agertzen dira.

Kanta bilduman, informanteak garrantzia handia hartzean dabe eta kantearen letrea eta musikeaz gainera, informantearen izena, datuak eta erretratu be agertzen dira. "Kanta eta bertsoak sailkatu orduan ez dot gura izan ohiko alkarketarik egin. Nire asmoa -beste kantutegi batzuetan ikusten diran sailkapenak albo batera itxizituri edo informanteen garrantzia baloratutea eta bide batez euri

**Aurkezpen ekitaldia hilaren 5ean izango da Igorreko Lasarte Aretan 20:00etan**

ARRATIA ALDEKO KANTA ETA BERTSO ZAHARRAK  
*Liburuaren aurkezpena*



**Maiatzak 5**  
20:00etan Igorreko Lasarte aretoan

Arratiako Musika Eskola

**begitu**<sup>in</sup> **urte** 25 **urte**



**Liburuaren aurkezpenarako egin dan kartela.**

omenaldi txiki bat egitea izan da" dino Ruper Lekue egileak.

## Aurkezpen ekitaldia

Liburu honen aurkezpena maiatzaren 5ean arrastiko 20:00etan izango da Igorreko Kultur Etxean. Bertan, Gontzal Mendibilek bere azken diskoko kanta batzuk liburu honetan jasoten diranak kantauko

ditu. Iker Allur eta Argi Zamezak be kanta eta bertso zaharrak bizibarrutuko dabez.

Eta Ruper Lekuek, Naia Rodriguez eta Iban Gortazarrek, eta Oihane Barrenetxeak berbea hartuko dabe liburuaren inguruko gorabeherak kontetako.

Begitu-lagunak liburua doban jasoko dabe egunean bertan.

**Zugaitik BEGITUten dogu**  
A.P.I. 495  
www.inmobiliarialarrea.com  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre.  
Tfnoa: 94 631 80 04

**ETXKO TARTAK**  
BIZKAIA  
94 631 23 26 | 653 709 965 - 653 709 386  
Elexalde 15, Beda  
http://www.etxkotartak.com

Bizkaifisios SLK  
bi zentro ditu  
**Fisioterapia Zentroa Igorre**  
Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08  
**Andra Mari Klinikea**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1, Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64  
www.bizkaifisios.com

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Auzolagunak - Aire purifikatzaileak  
Tutak kaltetutako pertsonak eta munitate larriak  
Igorreko Industrialekua, Pab. 017  
Tel/Fax 94 631 62 76  
819 134 316  
48140 Igorre Bizkaia

**etlauri**  
HOTEL  
Natura erakargarria  
Landa Sustrak  
Etxeak  
Altrusta 38, 48144 ZEANLURI | +34 946 317 888 | etlauri.com

**GALANTA**  
Barrutik jantzeko  
Zugandik sano hurbil  
Lehendakari Agirre 25, Igorre  
Telefonoa: 94 631 90 00



BEGITU 10 URTE JAIA

# 10. urteurrena ospatu dau BEGITUK

Aprilaren 20an Igorreko Kultur Etxean egindako ekitaldiagaz hasi zan ospatuten BEGITU bere 10. urtebetetzea.

Aldizkariaren historia errepasetako aukerea egon zan egun horretan, bai eta proiektuak aurrera begira daukazan asmoak azalduteko be. Hitzaldi horreezaz gainera, hainbat ikuskizunegaz disfrutetako aukerea euki eben bertara hurreratu ziranak; besteak beste, akrobaziak, bideoa, antzerkia eta musikea.

BEGITUREN ardurea daukan Zertu Kultur Elkarteak eskerrak emon gura deutsez ospakizunera etorri ziran guztiai. Argazkiak: Zigor Belaustegioitia.



## Gure Ikastetxeak

Arraiko Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikoa

- Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoire
- Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
- Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zaberio
- I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoire
- Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**  
Tel.: 94 601 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezikuntza, Lehen Hezikuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezikuntza, Berezituegok, Hezikuntza zirkulok

**JANDONIZ**  
magisteriazko etxea  
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Birkaita - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

**Kendall Languages**

- Trinity College Londonen azterketa ofizialerako matrikulea zabalik martiaren 23ra arte
- Cambridge, EDI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elxalde 4 beheko - 48.140 Igoire (Bizkaia) - 94 657 73 48 - www.kendall-languages.com

**BOLA JOKOA**

**Banaka eta binakako txapelketak**

**Maite Arrizabalaga**

Bola txapelketea aurrerantza doa eta hile honetako azkenengo aste-goienean amaituko da. Hurrengo bi astegoienean, Bizkaiko txapelketak burutuko dira. Tirada horreen ostean, beste bolatoki bi falta dira Komarkala amaituteko. San Bartolome lehenengo eta Gure Kirolak gero.

Taldeka Zomatzako San Migel doa aurretik, Oba zapigaren, Lemoa hamargarren eta Areatzako Fraka Zuriak azkenengo postuan dagoz. Aurten sailkapen bi egin dabez; gizonetzkoak eta andrazkoak. Gizonetan, San Migeleko Beñat Gorospe dago lehenengo postuan eta bigarrenean, Oba taldeko Eneko Gorospe. Andrazkoetan Belatiketa Elkarteko Josune Samionandia dago goian eta bigarren Oba taldeko Itsaso Arrizabalaga.

Datorren zapatuan, maiatzaren 5ean Bizkaiko banakako txapelketea ospatuko da Zomatzako "Gure Kirolak" bolatokia eta hilaren 12an binakakoa. Bizkaiko txapelketea irabazten dauana, zuzenean pasauko da Euskadiko finalera.



**Bola jokoak.**

**FUTBOLA**

**Ligea azkenetan da**



**Lemoa futbol taldea Binissalem-en kontrako partiduan.**

**Maialen Egileor**

Lemoa hirugarren mailako taldea da honezkerok, baina jokalariek dana emoten jarraituten dabe. Horren adierazgarri da Zamorari 2-1 irabazi etsiela. Federazio Kopan be Mallorcan 5-0 galdutaren, ez eben kanporaketea galdutaz emon eta ia-ia buelta emotea lortu eben. 6-1 irabazita, gol baten faltan baino ez ziran gelditu. Orain ligea burua altxautu amaitutea daukie helburu. Bi jar-

dunaldi baino ez jakiez falta: Segovianaren kontra lehenengo eta Amorebietaren aurka gero.

**Arratiarrak lider**

Arratiako gizonetzkoak 4-2 irabazi etsien azken partiduan Ugeragari eta lider izaten jarraituten dabe. 4 jardunaldiren faltan 3 puntuko aldea ateraten deusie Basconiar. Alde handiagoa daukie andrazkoak bigarrenagaz, hain zuzen be, 5 puntu ateraten deusiez Barakaldori 3 jardunaldi falta jakiezanean.

**RALLYSTONE**

**Gauetz pasauko dira auto klasikoak Arratia eta Zeberiotik**

**Erredakzioa**

Zazpigarren urtea da RPMVK (Real Peña Motorista Vizcaya) Rallystone antolatuten dauala eta hilaren 11tik 13ra izango da aurten. Hiru egunetako rally honetan, 25 urte baino gehiago dituen autoak hartu ahal dabe parte. Urtean urtean 70 autotik gora hartu izaten dabe parte eta gurean geldialditxo bat egiten dabe, zaletuak patxadaz ikusi dagiezen autook. Aurten, 22:30etik 23:30era egingo dabe geldialditxoa Areatzan.

Bilbon hasiko da proba hau arrastiko "zazpirak edo zortzirik aldera" antolzaileen esanetan. Egun horretan pasauko dira gutretik. "Areatzan geldialditxo bat egingo dabe eta gero Zeanurira joango dira. Barrio Areatzara eta handik, Upotik, Zeberiora joango dira Bilbora bueltetako" azaldu deuto BEGURI Txomin Goti antolzaileak.

Hurrengo egunean Kantabrian ranta joko dabe.

**Areatzako pilotoak**

Proba honetan, urtero legez, ez dira faltako Arratiako autoak eta pilotoak. Holan, aurten, Areatzako Iban Eguzkitzak, Oscar Padillagaz, hartuko dau parte BMW E21 baten.

**FUTBOLA**

**Luis Prieto Lagun Taldea Gasteizera Prietori babes emoten**

**Erredakzioa**

Datorren maiatzaren 6an Luis Prieto lagun taldeak Gasteizera urteera egingo dau. Ekintza honegaz, Luis Prieto Alaveseko futbol jokalaria babes eskeini gura deuto. Horretarako, Dimatik autobus bat urteko da goizeko 11:00etan. Triki poteoa egingo dabe Gasteizko alde zaharrea eta partidura joan aurretik bazkaria egingo dabe alkarregaz izena emoten daben taldekideak. "Sarreraz gainera, taldekide bakotzak 15€ ordaindu behar dauz izena emoteko orduan. Bazkideak, ohiko lekuean apuntetako aukerea daukie maiatzaren 2ra arte" jakin arazo dabe Luis Prieto lagun taldetik.



**Luis Prieto.**

**ZEKUTZE**  
SABINO ARANA, 34  
40140 ARTEA - BIZKAIA  
Tel.: 94 631 52 83

**indar**  
instalazio elektrikoak  
Bidosola Industrialedea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
T. 94 655 47 19  
indars@indar.es • www.indar.es

**CERRO ERAIKUNTZAK**  
Beheto suetan, harrietan, azulejoetan... aditua.  
Tel: 605 71 64 17  
Erreforma orokorrak

**Dia %**  
**PEDRO AUTOSERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

*Los Chopos*  
neurri egindako armairuak  
Adu. Los Chopos, 35 (Nugat) Tel.: 94 630 40 94  
**Esposizioa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**FIXMI**  
FOTODENBIAIONE IRAGORRI  
LEHENDAKARI AGIRRE, 5  
48140 IGORRE  
BIZKAIA  
Tif: 94 612 02 41  
Fax: 94 612 02 46  
kixmikopi@gmail.com

**AKTEGIA**  
**GAY & LORA**  
**IGORRE**

Emilio Gotti banatzaile ofiziala  
**San Miguel**  
Arloak Etlariak  
94 673 64 02 Industrialedea E-3 Pabekoa (Igorre)

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DIRU KONTUTAN  
ONDARUN HIGAZTAN  
ABOKATUTAN  
Sabino Arana, 1-Phon. 94 673 71 41 - Fax: 94 673 41 01 - 48140 IGORRE

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**axular**  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.l.**  
LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETA  
GARRIAK  
UR SAREAK  
SARRIEMENTU SAREAK  
BASERRI ETA BASOAK BIDEAK  
PABELLOAK  
URRABIZDIAK  
Iturietz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Fax: 94 673 95 25  
e-posta: c.ekin@construccioneseekin.com

*Pinturas Aratia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**RAID**

**Arratiako raid-ean berrogei taldek hartu eben parte**



Arratiako Raid-eko partaide bat.

**Erredakzioa**

Lupetz artean eta euripean jokatuzan Arratiako Raid-a apirilaren 21ean. Arratiakoa, Columbia Raid Series-eko bigarren proba izan zan eta berrogei taldek hartu eben parte bertan. Antolatzaileak pozik agertu ziran "entzundako komentario guztiak onak izan ziralako".

Hurrengo proba Lizarran izango da bagilaren 16an.

**Sailkapena:**

- Andrak:**  
1-. Ekin Raid Eutsi neskak.  
2-. Mugarra TT1.

**Gizonak:**

- 1-. Ekin Raid Xuxen Xuxen.  
2-. Veterinaria Himalaya Raidlight F&C.

**Mistoa:**

- 1-. Columbia Vidaraid.  
2-. Columbia Vidaraid Esteribar.

**MENDIA**

**Alex Txikon: "Bide barria zabaldu izana, bigarren planoan geratzen da han galdu genduanagaitik"**

**Erredakzioa**

Etxean da Alex Txikon. Iozketak osatuten doaz, hiru lagun heriotzak itxitako hutsuneak ez. "Saiatuten naz han bizi izan genduna ahaztuten eta aurrera egiten" azaldu deutso Lemoako mendizaleak begituri.

Hilabete luze bi egon dira Txikon eta bere espedizinokideak Gasherbrum I (8.048 m) mendian eta hegoaldeko partean bide barri bat zabaldu dabe. Baina Gerfried Gosch, Nisar Hussein eta Cedric Halhen hil ziran tontorrerako saioan eta horrek bigarren planoan ixten dauala egindako lana dino Txikon. Dana dala, neguan zortzimilako baten bide barri bat zabalzea ez da gauza arrunta.

**Ebakuntza hileon**

Gorputzeko zauriak osatuten badoaz be, Alex Txikon kirofanotik pasau beharko dau hilaren 3an, ezker hankako behatz lodian ebakuntza egiteko. "Baltzaltza dagoan behatzaren goiko zatia kenduko deuste. Hazurrik ez deuste ikutuko baina aste batzuk beharko dodaz guztiz osatuko" dino Alex Txikon.



Alex Txikon.

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**  
Instalazio elektrikoak • Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak  
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 LERROA  
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

*Ametzola Landetxea*  
Ametzola 1-1  
48499 Zeberio  
629 429 870  
www.ametzola.net



**Bar Restaurante Montero**  
Eguneko menua  
euskal sukaldaritza,  
sukaldaritza bolibiarra  
eta brasildarra  
Zelala 19 - Arantzazu - 619 903 653

**INCOESA**  
Tel. 94 631 32 75  
Faxa. 94 631 37 66  
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA  
SOLARIUM  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 GORRE (Bizkaia)  
# 94 631 92 00

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115  
**www.begitu.org**  
Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfñoa 649 86 95 36

**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte  
• Bobbi • Ray • Aranda  
• AKF • guckler • Arantzia  
• Gantelab • Lela • Harroak  
**sein**  
LEHENDAKARI AGIRRE 23 • 496 314 216  
seinmoda.5@hotmail.com

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ  
Batezoki: A1, A, B1E, B  
Lehendakari Agirre 23  
Tfnua: 94 673 71 32  
48140 GORRE (Bizkaia)  
garantxeautoeskola.net

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
L  
Lernela eskolaraz zaitz oneraz  
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: urbilu@reuskarret.net

## JARDUNALDIAK

# Etnografia eta hizkuntzalaritza jardunaldiak Diman

## Erredakzioa

Maiatzaren 12an, Dimako Eleizalde aretoan, Euskararen Jatorria alkarteak bere zazpigarren biltzerra egingo dau. "Etnografiatik euskararen jatorrirantz" titulupean, etnografiak hizkuntzalaritza egin ahal deuskan ekarpenaren gainean egingo dabe gogoetea bertaratuakoa. Arrastian Jentilzubi eta Baltzolako kobetara bisitalditoxa egingo dabe partaideak eta Angel Larrea Arratia Institutuko irakasle zeanurizarrak gidatuko dau bisitalditoxa hau, mitologia eta inguru honetako historia azaldu bitartean.

Topaketa honeetan, Julio Caro Barojak eta Joxemiel Barandiaranek euskerearen jatorriaz egingo daben ekarpenak edo proposatutako zenbait etimologia aztertuko dabez. Gero, Felix Zubiagak etnografia sustraien barruan dagozan arketipoak hizkuntzaren sorreran izan eben garrantziak egingo dau berba, eta Javier Goitia geografo eta ingeniariak oinatz edo erro galduen gaineko gogoetea egingo dau euskerazko eta gaztelarazko hainbat etimologia proposatu.

"Dimako Baltzola kobetara bisita egingo da bazkal ostean leku zoragarri hau ezagutzeko" dinoe antolatzaileak. Eta ondoren euskerearen jatorriaren gaineko aurreretiak izango dira berba-

gai; "orografiari esker salbau ete zan euskerea? Latina eta beste hizkuntzak beste aldatu da? Ez dauka ahaiderik gure hizkuntzak?", berbarako.

Interesdunak izena euskararenjatorria@gmail.com-en emon behar dabe eta 45 euro ordaindu, 30 ikasle edo langabeak.

## Egitaraua

09:30ean, harrerea, akreditazioa eta liburuen erakusketea.

09:45ean, agurra eta aurkezpena. 10:00etan, "Joxemiel Barandiaran eta Caro Barojaren ekarpenak hizkuntzalaritzari".

10:45ean, Felix Zubiaga "Euskal etnografia eta euskerea".

11:45ean, Javier Goitia, "Euskararen lur eta paperetako oinatz galduek".

12:30ean Mahai ingurua "Etnografia eta hizkuntzalaritza".

14:15ean, bazkaria.

16:45ean, bisitaldia: Dimako Jentilzubi eta Baltzolako kobak.

18:15ean, Bideo proiektzioa *Euskararen jatorria: enigma europar bat*.

18:30ean, mahai ingurua "Euskarari buruzko aurreretiak". Arnaiz, Naberan, Zubiaga...

19:30ean, Luis Silgo, "Las inscripciones de Iruña-Veleia y la estabilidad de la lengua vasca".

20:15ean omenaldia Sarkisian, Kapanaga eta Txillardegiri.

## UDALEKUA

## ZaztaUdalekuetan izena emoteko epea zabalik laster

## Erredakzioa

Zaztaparrak Asti Taldeak aurtengorako antolatutako udalekuak Maetzun (Araba) izango dira abuztuaren 3tik 14ra. Izena emoteko epea maiatzaren 14an zabalduko da eta 18an zarratuko da. Goizeko 10:00etatik 14:00etara emon ahal izango dira izenok telefono honetara deitu ezker: 681 116 991.

Udaleku honek lehen hezkuntzako 1. mailatik hasi eta 16 urte bitarteko ume eta gazteak zuzenduta dagoz. "Zaztalendiako ateak zabaltzeaz dagoz. Animau eta ez galdu aukera hau" dinoe antolatzaileak.



Zaztaparrak udalekuetan.

## BERTSOLARITZEA

## Arratiako Bertsolari Txapelketea Zeanurin

## Irati Urien

Badatzo aurtengo bertsoen Bizkaiko Eskualdeetako Txapelketak. Arratiakoa, maiatzaren 12an izango da Zeanuriko frontoian, 17:30ean. Honeexek izango dira parte hartzaileak: Illart Gumuzio, Ander Aldazabal, Beñat Romero, Iñaki Iturriotz, Irati Astondoa eta

Unai Ormaetxea. Beste eskualdeak, Enkarteri, Hego-Urbe, Durangaldea, Lea-Artibai, Uribe Kosta, Uribe Butroe eta Busturialdea izango dira. Eskualde bakotzak bere nortasun propioa dauka eta horren isla izango da txapelketea be. Bertsozaleetasuna Bizkaia osora zabaltzea da Eskualdeetako Txapelketen helburuetako bat eta

bertso-eskolak urtean zehar egingo dala zabaltzeko be balio dau, eskolatik plazara salto egiteko. Egitureari jagokonez, azken Bizkaiko Bertsolari Txapelketako egitura mantenduko dau 2012koak be. Hau da, Eskualdeetako Txapelketak izango dira udabarrian, eta udagoienean Bizkaiko Txapelketea jokatuko da.

## ANTZERKIA

## Zugan Ni antzerki jaialdia

## Erredakzioa

Zugan Ni, Markeliñe antzerki taldeak gazteak antzerkira hurreratzeko ikastetxeen bidez kudeatzen dauan proiektua da. Aurtengoa bosgarren edizioa da. Maiatzaren 10ean, 20:00etan, Igorreko Kultur Etxean, Arratia Institutuko eta Amorebieta-Etxanoko Karmelo Ikastetxeko ikasleak taularatuko dabez eurek sortutako lanak. Arratiarrak *Tras, tras Lourdes* eta Zornotzakoak *Krisia? Hitzik ez lanak* antzezuko dabez.

## MUSIKA

## Ainara Legardonen soinu elektrikoak zuzenean

## Erredakzioa

Ainara Legardon bilbotarrak kontzertua emongo dau hilaren 12an gurren. Etxetik kanpo dabil izen handia egiten Legardon. Izan be, kontzertuak emon ditu Estadu Batuetan eta Europa osoan, eta Estadu Batuetako artisten kontzertuak zabaldu ditu; Dayna Kurtz, The Walkabouts, Thalia Zedek edo Giant Sand-enak, beste batzuen artean. Askotan izan da *Ball of wax* edo *Borderdreams* moduko bildumetan sartutako artisten artean estadiatuarrak ez zan bakarra.

Ainara Legardonek 20 urte emon ditu eszenalekuen gainean. "Onion izeneko taldea desagertutakoan

bakarkako bideari ekin eutsan. Lehenengo hiru diskoetan *In the mirror* (2003), *Each day a lie* (2005) eta *Forgive me if I don't come home to sleep tonight* (2009) amerikar zuztarretan bustitako folk-rocka landu eban. Azkenengoan, osterara, *We once wished* izenekoan, soinu gordin eta elektrikoagoa agertu dau. Energiak eta rock-az blai, biziteko eta esperientzia irazteko egarriaz abesten dau. Disko hau 20 zerrenda desbardinek 2011ko diskorik onenen artean kokatu dabe" dinoe Igorreko Kultur Etxetik.

Kontzertua 21:00etan izango da Kultur Etxean.

## ASTE KULTURALA

## Andres Urrutia euskaltzainburua Lemoako kultur astean

## Erredakzioa

Maiatzaren 7tik 13ra kultur astea antolatu dabe Lemoan eta eskolaume zein publiko zabalarentzat kultur ekitaldiz betetako egitaraua dago.

Holan eskolan, eta aste osoan zehar idazleak, lan bardintasun tailerrak, kirolariak Lemoako Txirindularitza Alkartearen eskutik eta beste gauza asko egingo dira.

Herian barriz, Elizondoko Kultur Gunean Arratiako Eleizearen erakusketak ibiltaria inaugurauko dabe hilaren 7an eta aste osoan egingo da ikusgai arrastiz. Martitzenean, Andres Urrutia euskaltzainburua Lemoako Juan Bautista Eguzkitza idazlearen gaineko berbaldia emongo dau arrastiko zazpiretan jubiladuen etxearen gaineko aretoan.

Eguenean, Arratiako Musika Eskolako ikasleak kontzertua

emongo dabe Andra Mari eleizan 19:00etan. Hilaren 11n, barikuan, *Euskarazetamal* umorezko an-

trezlana ikusteko aukerea izango da arrastiko zortziretan eta honen ostean, Lemoako I. Narrazio Lehiaketaren sariak bananduko dira kiroldegian. Domekan, Iriean Lagunen Klubak ipiniko deuto amaiera aste honeri, *Eguzkiaren bidaia* ikuskizunagaz. Hau kiroldegian izango da arrastiko seiretan.

**Lemoako ASTE KULTURALA 2012**

**Maiatzak 7, astelehena**  
18:00 Elizondoko Kultur Gunea  
"ERAKUSKETAK BOSTARRA" eta "TRAZGARRA"  
(Aurazkoak Etxea)  
Honekiko eta beste hainbat ekitaldi

**Maiatzak 8, martitzena**  
18:00 "Jubiladuen gaineko berbaldia"  
"JUAN BAUTISTA EGUZKITZA IDAZLEAREN  
EUSKAL DIAZIE BARRIN ETXANARRIAK"  
(M. de la, ANDRES URRUTIA)  
(Etxelak eta beste hainbat ekitaldi eta hitzaldiak)

**Maiatzak 9, okena**  
19:00 Andres Urrutia  
"Jubiladuen gaineko berbaldia"  
(ERREN LAGUNEN KLUBA)

**Maiatzak 10, ostiratsuna**  
18:00 "Eguzkiaren bidaia"  
Ikusizko eta audio bideoa  
(ERREN LAGUNEN KLUBA)

**Maiatzak 11, larunakoa**  
19:00 Andra Mari

**Maiatzak 12, igandea**  
19:00 "Ball of wax" eta "Borderdreams" moduko bildumetan sartutako artisten artean estadiatuarrak ez zan bakarra.

**Maiatzak 13, domeka**  
18:00 "Eguzkiaren bidaia" ikusizko eta audio bideoa  
(ERREN LAGUNEN KLUBA)

IKASTAROA

# Umeentzako musikeagaz olgetako ikastaroa Helena Lazaroren eskutik



Helena Lazaro.

Erredakzioa

Helena Lazaro Israelen bizi dan Igorreko pianojoleak, 0-3 urte bitarteko umeentzako musika ikastaroa emongo dau Areatza, Lemoa, Igorre eta Zeanurin bagila eta garagarrilean.

Ikastaroa etxeko txikiak eta guraso edo zaintzaileak zuzenduta dago. Estilo desbardinatoko musika erabiliko dau Lazarok, klasikoa, jazz-a, modernoa... batzuetan, txirula eta organoagaz lagunduta.

Talde bakotxean gitxienez 6 ume eta gehienez 8 egongo dira, umeen edadearen arabera oso-

tuta. Taldea, astean behin batuko da eta saioak 45 minutukoak eta euskeraz izango dira.

**Kalidateko musikearen onurak**

Igorreko pianojolearen esanetan, ikastaro honek bentaja asko daukiez. Izan be, helburuak adin bereko umeak dituen gurasoak alkar ezagutzea, umeak etxean erabilteko idea musikalak hartzea, gurasoak umeak kalidateko ordua pasatea eta umeak garatzen laguntzea dira. "Jakina da musika umearen hizkuntzeagaz eta ikasteko gaitasunagaz dagoala lotuta. Metodo honetan erabiltzen diran musikearen eritimoak eta melodia desbardinaren aberastasunak umea fisikoki eta kognitiboki, emozinalki eta sozialki garatzen lagunduten dabe" azaldu eban musikariak.

Gorputz mobimentua, perkusinoa, panpinak, pelotak, kolo-reetako zapiak eta maraka txikiak erabiliko dabez ikastaroan.

**Izen emotea**

Ikastaroan parte hartzeako izena Areatza, Lemoa eta Zeanuriko udalteeetan eta Igorreko Kultur Etxean emon daiteke.

MUSIKEA

# Aikok bere zazpigarren diskoa kaleratu dau

Erredakzioa

*Oinak Kantuz* titulupean Aikok bere zazpigarren diskoa kaleratu dau. Diskoa osotuten daben hemeretzi piezak "jantzan egiteko pentsauta dagoz. Erromeria antzeko bat grabetea gura genduan: birbilketegaz hasten da eta birbilketegaz amaitu. Ordena jantzan egiteko pentsauta dago" dino Asier Garcia Aikokoak. Diskoa kalean da iadanik eta Elkar dendetan topau ahal da.

Aitor Furundarenak akordeoia, Alvaro Garciak gitarrara, Sabin Bikandik txistua eta Asier Garciak perkusinoa jotzen dabe eta piezak originalak dira, antxinakoak gogora ekarri arren. "Askotan esaten deuskue falsifikadoreak garala, antxinako kopiak dirala... Guretzat hori harro egoteko mo-



Oinak kantuz diskoa.

dukoa da, ondo egiten dogula esatea da. Hori gustetan jaku" azaldu dau Asier Garciak.

*Oinak Kantuz* CDa mendiz mendiz aurkeztuko dabe Aikokoak Udabarria Dantzan izeneko programan. Lehenengo aurkezpenean, maiatzaren 13an Urbian izango da, hurrengo Gorbeian bagilaren 3an eta azkenengo mendiz mendiz aurkezpenean Urkiolan San Antonioko erromerian bagilaren 17an izango da. Honeetan CDa osorik ipiniko da jantzan egiteko.

**Bost urte eta zazpi disko**

Bost urte dira Aiko taldea sortu zanetik eta zazpi disko kaleratu ditue. Lehenengo biak, danetarik apurtxo bat euki eben eta gero monografiko batzuk egin ebezan: Bizkaiko dultzaina eta tanborraren monografikoa edota, jauziena, berbarako. Honetan jauzi guztiak batu zituen disko, liburu eta DVD baten.

Honeguz batera segiduten dabe klaseak emoten hainbat herritan eta "datorren urtean Bilbon egotea espero dogu, topetan gagoz klaseak non emon" dino Aikokoak.

Bagilaren 23an izango dabe ikasturte amaierako jaia Durangoko Plateruena Kafe Antzokian.

LEHIAKETEA

# Abesti lehiaketea Diman

Erredakzioa

Dimako Udaleko Euskera Batzordeak Abesti Onenaren Lehiaketea sustatu dau. Bertan, herriko musika taldeak hartu ahal izango dabe parte. Abestiak euskeraz idatzita egon behar dau eta ondoko hiru berba honeek agertu behar dira: euskerea, Dima eta Jentiltxu. Beharrak udalteeetan aurkeztu behar dira maiatzaren 31ko, eguerdiko 12:00ak baino lehen. Abestia wav formatean grabatu egongo da eta testua Word fitxategian. Dana CD baten.

Saria abestiaren maketea egitea izango da.



Talde bat Dimako Gaztetxean.

DUNBA

# Inauteriak Lemoako eskolan



Ikasleak mozorrotuta.

Lemoako eskolako ikasleak

Lemoako eskolan urtero ospatzen doguz gure ikastetxean Inauteriak. Gai bat aukeratu os-

tean, danok horregaz zerikusia daukan personajearen mozorroa prestatzen dogu. Aurreko ikasturteetan zirkua, jokoak, pelikulak, munduko musikak eta olinpiadak

aukeratu genduzan, eta aurrean giazkia historian zehar izan da gaia.

Holan Lehen Hezkuntzako lehenengo mailakoak hasita lehen gizakiaren abenturak antzestu zituen. Mamutak be harrapatu zituen. Ondoren hirugarren mailakoak antxinako Egipto irudikatu eben abesti eta jantzakaz. Gero laugarren mailakoak arabiarren desertura joan ginan, haren ohiko denda edo jaimakaz eta ikasle arabiar baten gurasoak margotutako mural politakaz.

Haur Hezkuntzako guztiak Erdi Aroa zelangoa zan erakutsi euskuen eta garai haretako hainbat personaje (errege-erreginak, zaldunak, gerlariak, arkulariak, abeslari eta trobadoreak, zapatarriak eta sorgin eta aztiak be bai).

Bigarren mailakoak euskal bale arrantzaleen bizitza zelakoa zan erakutsi euskuen. Itsasargi eta bale erraldoiak egin zituen antzerkitxorako. Irakasleen txandea heldu zanean orain dala hirurogei urteko eskola zelangoa zan ikusi genduan. Eskua altxautu "cara al sol" abestia abestu behar izaten eben eta abadeak ez jakien gustetan andrak frakak eroatea. Amai-

tzeo bosgarren eta seigarren mailakoak industria iraultzaren osteko lanbideak antzestu zituen jantza baten bitartez.

Betiko moduan guraso piloia etorri zan emonaldia ikustera eta oso ondo pasau genduan.

Gainera aste guztian zehar gurasoak egindako Euskal Inauterietako personajeen panpinen erakusketea egon zan.




Ikasleak kiroldegian.



### DENPORA-PASA

IMAN OLATU




#### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Luzetasuna. 2.- Boroa. Ikusmen organo. 3.- Azagari. Letra bat. 4.- Persona izenordaina. Otzarea. 5.- Abade. Beste, adina. 6.- Azpiko gona. Amerizioa. 7.- Bokala. Babesleku. 8.- Azkar. Bat erromatar. 9.- Sortzailea.

#### GOITIK BEHERA

1.- Urri. Bokala. 2.- Berrogeta hamar erromatar. Kulunka. Zilarra. 3.- Letra izena. Etxe aurre. 4.- Huts. Trebe. 5.- Ekintza. Andrazkoen izena. 6.- Nori atzikia. Zezenak bi. Bokala. 7.- Bokala. Hodei.




Topau Egiptoko mitologiako zazpi jainkoren izenak.

A	D	E	L	E	I	S	O	R	A
T	R	A	U	K	U	E	D	I	N
X	O	R	T	R	A	K	O	B	I
U	Z	K	O	O	D	I	A	R	O
R	O	H	T	U	A	T	G	U	N
T	X	I	Z	I	S	I	S	K	G
U	A	G	H	O	K	L	I	S	A
K	A	F	R	A	G	O	B	E	O
E	Z	A	I	N	U	T	U	D	P
G	O	N	A	Z	I	A	N	G	O
P	A	U	L	E	Z	I	A	U	R
E	Z	T	I	B	E	D	U	R	T
R	A	S	I	R	I	S	O	S	E
O	F	E	L	I	X	G	U	R	I
M	A	Z	J	O	K	U	D	E	N

# AKI MI KO

Zorrozki i o



**expert** **ARRATIA**

E-posta: [expertarria@cordevi.com](mailto:expertarria@cordevi.com)  
Lehendakari Agirre: 15 Tel: 94 673 50 55  
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax: 94 631 52 89

**ASESORIA**  
**Gorbeialde**

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfn: 94 673 92 93 Fax: 94 673 92 82  
E-posta: [gorbeialde@gorbeialde.com](mailto:gorbeialde@gorbeialde.com)

**HERRIKO BENTA**

HOSTAL

HERRIKO PLAZA  
48142 ARTZA - BIZKAIA  
Tel: 94 631 72 56

O P O P L I M R V N F U P M I  
O Z K L U K O V Ñ T H T B U F  
J X W Ñ P H N V I X Y N U D E  
O V N B U H K H D V B G F E S  
A B E R T S O E S K O L A E W  
R B G F F S Q R R Z B H W C T D  
E T G E U R E R Y B M T E D S  
F G O J Q S A I W E W E D Q  
U P Ñ I K O P A L E T Z T Ñ  
R N B U H K L I Ñ X W Y I R  
E T K R E W Ñ K O S O I O P  
J H W C T Z U H K A A K Y R  
T X P Ñ I K A D Q X Z N G V  
P V N B U H K B Z U B U R V  
N V T K R E W Y A W S E A A  
T B G F F S Q O T L L A X Z  
A T G E U R E B H E D F Q X  
J G O J Q S A T B E W U W V  
O P Ñ I K O P A L E T Z T Ñ  
M N B U H K L E Q P L T N O  
I T K R E W Ñ S Q L U K O  
U H W C T D U H T C R E S  
O N E E I J O K N T B F D  
L T V R F Z O Q L R I Y R

**Arratia**  
[www.bizkaikotxapoketa.biz](http://www.bizkaikotxapoketa.biz)

**Eskualdeetako**  
Berbolen Irakopelata

**BBT**  
2012

**Zeanuri**  
Maiatzaren 12an, zapatua  
Frontoian, 17:30ean

**bertzale**  
**BFA OFE**  
**bbk**  
Zeanuri Ututa  
**begitu**

Ilare Granuzio  
Ander Aldazabal  
Beñat Romero  
Iñaki Iturriontz  
Irati Astondoa  
Unai Ormaiztegui

## AITOR UGALDE

**"Umeai kick boxing eskolak emotea gustauko litxakit"**

Aitor Ugalde, Amezola auzuneko zeberioztarra, Euskadiko kick boxing txapeliduna da bere kategorian. Kirol honetan hasi zanetik urtebete baino ez dan arren, ez da hori lortu dauan domina bakarra. Izan be, apirilaren 21 eta 22an, Madrilen jokatu zan Espainiako Txapelketan hirugarren egin eban bere kategorian brontzeko domina lortuz.

**Erredakzioa****Espainiako Txapelketan hirugarren egin dozu. Pozik, ezta?**

Bai pozik. Ez nintzan finalera heldu baina lan ona egin neban. Finalurrekoetara heldu nintzan, eta hirugarren geratu nintzan. Urtebete bakarrik daroat entrenetan. Juan Carlos Blanco Sanchez da nire entrenatzailea eta sano pozik nago beragaz. Nire pisua apur bat konplikaua da, ze ez dago jente askorik.

**Zein da zure pisua eta kategoria?**

Pisuari jagokonean 90 kilo baino gehiagoko kategorian nago. Hortik behera kategoria asko dagoz: 90 baino gitxiagokoa, 85 kilo baino gitxiagokoa, 80 kilo baino gitxiagokoa... 5 kiloko tartekaz, baina 90etik gora danok gagoz kategoria bakarrean, gorako muga barik. 90 kilo baino gehiagoko guztiakaz neurtuten naz.

Garrikoari jagokonean, garriko

berdea daukat. Esandako moduan urtebete baino ez daroat kirol honetan.

**Lehen beste kirol batzuk eginen zenduzan?**

Ez, ez. Hau da egiten dodan lehenengo kirola. Gustau egin jata eta hortxe nago. Motibazio handia daukat.

**Eta zelan bururatu jatzun kick boxingean hastea? Ez da jente askok egiten dauan kirola.**

Beste barik. Kirola egitearren. Maisua laguna dot da harek animau ninduan kirol honetan hasteko. Eta gustura nabil. Gustetan jata.

**Euskadiko txapelidun moduan joan zinan Madrilera, ezta?**

Bai. Urrietan lortu neban Euskadiko txapela.

**Hain denpora gitxian hainbeste lortzeako asko entrenau beharko da...**

Bost egun astean eta egunean ordu bi egiten dodaz Ugaoko

kiroldegian. Karran egiten dot, zakua, ariketa bereziak, burrukal-diak... danetik.

**Zer moduzko maila dauka Euskal Herriak kick boxingean? Ez da oso kirol ezaguna.**

Ez, ezaguna ez da baina gimnasio asko dagoz eta kirol hau egiten dauan jentea badago. Ni Espainiako Federazioan nago eta eurek Euskadiko selekzioa egiten dabe eta hor nago. Gainera, gimnasioak erakustaldi asko egiten dabez leku batetik bestera, baina horreek gauzorroek ez dira inon agertzen, txapelketa ofizialak baino ez. Dana dala, gu hor gabiz jentea erakarri guran.

**Zuok gitxi bazarie uste dot neskak oraindino gitxiago dirala kirol honetan, baina harek be papel ona egin dabe Espainiako Txapelketan, ez?**

Bai. Beste gimnasio batetik baina gure entrenatzaileagaz joan zan Gasteizko neska bat, eta harek zidarrezko domina lortu eban.

**"Hedabideetan**

*gitxi agertu arren,*

*gimnasioetan kirol hau*

*ezagutzera emoten*

*saiatzen dira"*

**Espainiakoan orduan hainbat domina lortu duzue, zuk brontzekoa, neska horrek zidarrezkoa...**

Bai eta beste mutil bi be joan ziran eta harek brontzekoa ekarri eben beren kategorian. Pozik gagoz lortu dogunagaz.

**Kick boxingetik bizimodua ateratzerik badago? Kirolari profesionalik badago kirol honetan?**

Bai, bai badagoz, baina gatxa da. Profesional ona izateko lehenengotik amateur ona izan behar da

eta txapelketa asko irabazi. Nik gustukoa dodalako egiten dot, ondo pasetako, beste barik, ez daukat honetaz biziteko asmorik. Egia esan, profesionalak be ez dabe diru askorik kobretan eta beste nonondik atera beharko da bizimodua, beharretik.

Dana dala, hemendik urte batzuetara, garriko baltza lortutakoan edo behintzat prestatuago nagoanean gustauko litxakit kick boxing irakasle izatea eta umeai kick boxing eskolak emotea.



# ALKIZABAL

www.alkizabal.net  
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

## Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

**BOLUNBURU POLIGONOA**  
Amorebieta-Lemoa bidea  
Tel. 94 631 44 06. Faxa. 94 631 20 26  
48330 Lemoa (Bizkaia)



**Banatzale ofiziala**







• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.  
• Garraio zerbitzua.